

Sagu batzuek pertsonen antzeko hilekoa dutela aurkitu dute

Sagu afrikar batek hilekoa duela aurkitu dute Australiako Clayton Unibertsitateko ikertzaile batzuek. Aurkikuntza harrigarria izan da, ezagutzen diren gainerako karraskariek ez baitute hilekorik izaten. Horregatik, laborategietako sagu eta arratoiak oso eredu kaskarrak dira emakumeen ugaltze-aparatua eta haren asaldurak ikertzeko. Aurkikuntza honekin, hain zuzen ere, horretarako eredu aproposago baten aurrean egon gaitezkeela uste dute ikertzaileek.

Acomys cahirinus sagu emeek bederrazi eguneko zikloa dutela ikusi dute, eta hilekoak 3 bat egun irauten diela, zikloaren % 20-40. Horretan, emakumeen zikloaren antza du, 28 eguneko zikloaren % 15-35 irauten baitu hilekoak emakumeetan. [Emaitza horiek bioRxiv webgunean argitaratu dituzte.](#)


Orain, ziklo bakoitzean umetokia esaltzen duen ehuna saguetan nola hazten den eta nola desagitzen den ikertzen ari dira ikertzaileak, batetik; eta, bestetik, transkriptoma (une jakin batean espresatzen den RNA guztia) aztertzen ari dira, geneek zikloa nola erregulatzen duten jakiteko asmoz.

Emakumeen ugaltze-aparatua ikertzeko aukera berriak irekiko diren itxaropena dute ikertzaileek, nahiz eta oraindik goiz den hori jakiteko. Orain arte zeuden eredu egoki bakarrak primateak ziren. Izan ere, ugaltzenen % 1,5ek bakarrik du hilekoa, eta horietako gehienak primateak dira. Laborategiko sagu arruntek ere hilekoa izatea eragin daiteke, baina obarioak kendu behar zaizkie, eta hormona-dosi handiak eman. ●



Acomys cahirinus sagua. ARG.: MATĚJ BATĀHA/CC_BY-SA 3.0.

Opioideek espermatozoideen eraketa erregulatzen dute



EHUko ikerketa batek opioideen errezeptoreak espermatogenesian inplikaturik daudela argitu du. Nerea Subiran eta haren ikerketa-taldeak lehenengo aldiz deskribatu ditu errezeptoreok espermatozoideen sorreran parte hartzen duten zeluletan. Plos One aldizkarian argitaratu dute lana.

Errezeptore opioideek zelulen komunikazio-sisteman parte hartu ohi dute, eta ikerketa berri honek agerian utzi du espermatozoideen eraketa-prozesuan badutela zeresana. Zehazki, espermatogenesian zehar informazio genetikoa modu egokian banatzeaz arduratzen den makineriaren eraketa erregulatzen dute opioideen errezeptoreek.

Munduko Osasun Erakundearen arabera, azken hamar urteotan ugalkortasun-arazoak esponontzialki handitu dira herrialde garatuetan. Dagoeneko, jaiotzen diren haurren % 3 lagundutako ugalketa-tekniken bidez sortutakoak dira. Arazo sozial eta mediko handia bilakatu dira ugalkortasun-arazoak, eta kasu asko, gizonen ernalezintasunaren ondorio dira. Jakina da espermatogenesian gertatzen diren akatsek espermatozoide eskasak eta ez-funtzionalak sorrarazten dituztela, baina prozesu horretan inplikaturik



Nerea Subiran eta haren ikerketa-taldea. ARG.: EHU.

dauden mekanismo molekularrik ikertzen hasi berriak dira oraindik zientzialariak, ugal-osasunerako oso garrantzitsuak badira ere.

“Gurea animaliekin eginiko oinarriko zientziako ikerketa bada ere, ikerketa hauei esker gizonen emankortasuna kontrolatzen duten mekanismo molekularren inguruko informazioa jasotzen ari gara. Ernalezintasun kasu askoren arrazoiak hobeto ulertzen eta bere aurkako dianak eta estrategia terapeutikoak garatzeko aukera berriak irekitzen lagundu dute”, adierazi du Subiran ikertzaileak. ●

